



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUOPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
Europako Gizarte Funtza
Fondo Social Europeo



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014-2020
ALDIRAKO EGIF PROGRAMA ERAGILEAREN ETA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014-2020
ALDIRAKO GAZTE ENPLEGURAKO PROGRAMA
ERAGILEAREN ERAKUNDE ONURADUNEK
IRUZURRAREN AURKA ERABILTZEKO TRESNEN
ETA BALIABIDEEN GIDA**

2018 ekaina



Aurkibidea

Índice.....	2
1. Objeto.....	3
2. Concepto de la lucha contra el fraude	3
2.1. Distinción entre irregularidad y fraude	3
2.2. Detección de “banderas rojas”	4
3. Fases de la lucha contra el fraude	6
3.1. Prevención	6
3.2. Detección	8
3.3. Corrección y comunicación.....	10
3.3.1. Corrección.....	10
3.3.2. Comunicación	10
3.4. Seguimiento.....	12
Anexo I. Modelo de declaración institucional en relación a la adopción de las medidas antifraude en la gestión y control del Fondo Social Europeo.....	13



1. Xede nagusia

Gida honek zenbait tresna, prozedura eta gomendio biltzen ditu, EAeko 2014-2020 aldirako EGIF Programa Eragilearen (EAeko 2014-2020 EGIF PE) eta EAerako 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Eragilearen (2014-2020 GEPE) erakunde onuradunek erabil ditzaten iruzurraren aurka egiteko.

Gidaren helburu nagusia erakunde onuradunei iruzurraren aurka egiteko laguntza ematea da, eta alde horretatik, kontzeptuak argitzea (errazago identifikatzeko), zenbait prozedura eta tresna zehaztea (iruzurrak detektatzeko eta zuzentzeko erabil ditzaten), eta iruzurra egon daitekeela susmatuz gero horren berri emateko zer komunikazio-bide erabili behar diren azaltzea.

2. Iruzurraren aurkako borrokaren kontzeptua

Gastu-kontuetan **iruzurra** da, Europar Batasunaren Tratatuaren K.3 artikuluan oinarrituta ezarritako Hitzarmenaren arabera (Europako Erkidegoen interes finantzarioak babesteari buruzkoa), hauekin lotuta nahita egite edo ez-egite oro:

- **Aitorpen edo dokumentu faltsu, oker edo ez-osoak erabiltzea edo aurkeztea**, horrek ondorioztat baldin badu bidegabe funtsak jasotzea edo atxikitzea, dela Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorretakoak, dela Europako Erkidegoek edo haien kontura administratutako aurrekontuetakoak;
- **Informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea**, lehen adierazitako ondorio bera baldin badu.
- **Funts horiek berak emandako helburuetarako ez beste batzuetarako desbideratzea.**

Europar Batasunak, 2014-2020 programazio-aldi berrirako arau-esparru berriaren barruan, iruzurraren aurkako borrokari gero eta garrantzi handiagoa ematen dio. Iruzurra eta irregulartasunak prebenitzeko eta detektatzeko jarraipen- eta kontrol-prozedurak edukitzeko premia ez da ezer berria, baina programazio-aldi honetan behar-beharrezkoa da kontrol-jarduera horietara modu sistematiagoan eta agerikoagoan hurbiltzea.

2.1. Zertan diren desberdin irregulartasuna eta iruzurra

Xedapen Komunen Erregelamenduak ezartzen duenez, irregulartasuna da Batasunaren Zuzenbidean edo estatuko zuzenbidean haren aplikazioari buruz ezarritakoa ez betetzea, Europako Egiturazko eta Inbertsioko Funtsen egikaritzean parte hartzen duen eragile ekonomiko baten egite edo ez-egite baten ondorioz, ez-betetze horrek ondorio kaltegarriak dituenean edo izan ditzakeenean Batasunaren aurrekontuan, hari bidegabeko gastu-idazpen bat egozteak dakarrelako.



Beraz, ezarritako definizioak kontuan hartuta, iruzurtzat hartzen diren ekintza guztiak irregulartasunak dira, Batasunaren aurrekonturako kaltea dakarten heinean, baina irregulartasun guztiak ezin har daitezke iruzurtzat.

Irregulartasun bat iruzurtzat hartu ahal izan dadin, hauetakoren batek gertatu behar izan du: aitorten edo dokumentu faltsu edo ez-osoak erabiltzea edo aurkeztea; informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betezea, edota funtsak emandako helburuetarako ez beste batzuetarako desbideratzea.

Beraz, irregulartasun bat identifikatzen denean, erabaki beharko da iruzurra izan daitekeen edo ez, eta gogoan izan behar da, horretarako, detektatutako irregulartasunarekin lotuta nahita egite edo ez-egite bat egon behar duela iruzurra izateko.

Balizko iruzurrak identifikatu ahal izateko, Europako Batzordeak “bandera gorri” izeneko adierazle batzuk zehaztu ditu. “Bandera gorri” bat edo batzuk agertzea irizpide nagusietako bat izango dugu jakiteko balitekeela iruzurren bat izatea, eta halakoetan, irregulartasun jakin bat aztertzeari ekin beharko zaio.

2.2. Nola detektatu “bandera gorriak”

Lehen azaldu dugun bezala, zenbait “bandera gorri” zehaztu ditu Europako Batzordeak: iruzurren bat izan litekeela erakusten duten adierazle batzuk, alegia.

Hauetako dira “bandera gorri” edo iruzur-adierazle nagusiak:

1. Adierazle formalak: eragiketa bat justifikatzeko dokumentazioan ezaugarri formaletan akatsak izatea. Adibidez:
 - akats tipografikoak: fakturek edo bestelako agiriek idazpururik edo logotiporik ez izatea, testu-iturri estandarrean idatzita egotea, zigilurik ez izatea, harremanetarako inoren izenik ez aipatzea;
 - akatsak onuradunaren izenean;
 - akatsak marka/modeloaren ortografian;
 - akatsak jatorrizko herri edo herrialdean; etab.
2. Kanpo-adierazleak: bi hornitzailek edo gehiagok helbide bera izatea, edo datu berberak (telefonoa, faxa, produkzioa...), edo helbide bereko organo kudeatzailea, etab.
3. Egiturazko/legezko adierazleak: laguntzetan parte hartzen duten erakunde edo enpresek zuzendari berberak izatea, edo bazkide berberak, finantzazio-berme berberak, banku-kontu berberak, etab.



4. Adierazle komertzialak: laguntzetan sartuta dauden enpresek eta erakundeek harreman eksklusiboa izatea, merkatu-preziotik beherako tarifekin, etab.
5. Justifikatutako prezioetan anomaliak: ikusten denean prezioak merkatutik erabat kanpo daudela, eta betiere, horien alderaketa arrazoitu eta justifikatua egin badaiteke (kontuen datu-basea, merkatu-azterketak, etab.).
6. Ondoz ondoko gastu-aitorpenetan eragiketarekin zerikusirik ez duten fakturak aurkeztea behin eta berriz.
7. Ondoz ondoko gastu-aitorpenetan edo modu orokortuan hornitzaileen fakturak nahikoa xehetasunik gabe aurkeztea behin eta berriz.
8. Erakunde onuradun berdin bati edo eragiketa berdin bati lekuan bertan egindako egiaztapenen emaitza edo egiaztapen administratiboena aldekoa ez izatea.


Eragiketa batean edo erakunde onuradun batean horrelako anomaliak behin baino gehiagotan agertzea iruzur izan daitezkeen irregulartasunen seinale izan daitezke.

3. Iruzurraren aurkako borrokako faseak

Iruzurraren aurkako borrokan lau fase edo etapa daude: prebenitzea, detektatzea, zuzentzea eta jarraipena egitea.

Iruzurrezko ekintzarik ez gertatzea lortzeko asmoz, fase bakoitzean zenbait jardunbide daude aurreikusita, iruzurraren aurka egiteko neurriak maila guztietan erraz aplikatu ahal izan daitezen, eta erakunde onuradun guztiek fase horietako jardunbide guztiak bete behar dituzte.

1. ilustrazioa. Iruzurraren aurkako borrokaren zikloa



3.1. Prebenitu

Iruzurraren prebentzioa neurri eta jardunbide hauen inguruan artikulatuta dago, eta erakunde onuradun bakoitzari dagokio horiek abian jartzea:

- Iruzurraren aurkako neurriak hartzeari buruzko borondatezko adierazpen instituzional bat egitea. Dokumentu honen I. eranskinean, adierazpen instituzional bat ageri da, eredu gisa.
- Langileek iruzurra prebenitzeari eta detektatzeari buruzko prestakuntza-saio edo mintegi batzuetan parte hartzea. Saio edo mintegi horiek Bitarteko Erakundeak edo Kudeaketa Agintaritzak antolatuko ditu, eta garaiz emango zaie haien berri erakunde onuradunei, parte har dezaten.
- Azkenik, erakunde onuradunek jakinarazi egin beharko diete hartzaileei, hartzaile izan daitezkeenei eta egiten dituzten eragiketengatik interesdunak diren pertsona guztiei iruzur-susmorik balute edo irregulartasunik detektatuko balute Bitarteko Erakundearen helbide elektronikoa honetan jakinarazi behar dutela: FSE-euskadi@euskadi.eus. Erakunde onuradunek ere erabil dezakete helbide hori, Bitarteko Erakundeari iruzur-susmoaren berri emateko.



- Bestalde, Iruzuraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalak –organo horri dagokio Europar Batasunaren interes finantzarioak babesteko ekintzak koordinatzea, OLAF Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin elkarlanean– apirilaren 6ko 1/2017 Jakinarazpena ([Comunicación 1/2017, de 6 de abril](#)) eman zuen, Europar Batasuneko funtsen kontura osorik edo hein batean finantzatutako proiektu edo eragiketekin lotutako egitateren bat irregulartasun edo iruzurra izan daitekeelako susmoa izanez gero nola joka daitekeen azaltzeko. Jakinarazpen horretan iradokitzen denez, komeni da laguntzak izapidetzeaz eta kudeatzeaz arduratzen diren organo eta erakunde guztiek era honetako aipamen bat egitea, bai Europar Batasuneko funtsekin finantza daitezkeen laguntzen deialdietan, bai kontratazio-prozeduretan:

“Deialdi honen esparruan Europar Batasuneko funtsen kontura osorik edo hein batean finantzatutako proiektu edo eragiketekin lotutako egitateren bat irregulartasun edo iruzurra izan daitekeelako susmoa duen pertsona orok egitate horren berri eman dakiok Iruzuraren aurkako Estatuko Administrazioako Esku Hartzailatza Nagusiaren baitako Iruzuraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari, bitarteko elektronikoen bidez (Zerbitzuak web-helbide honetan horretarako prestatutako kanala erabiliz: <http://iqaepre.central.sepq.minhac.age/sitios/igae/es-ES/Paginas/Denan.aspx>), eta Zerbitzuak apirilaren 3ko 1/2017 Jakinarazpenean ezarritako baldintzetan”.

Hauxe da Jakinarazpena jotzeko esteka: <http://www.igae.pap.minhafp.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/NormativaDocumentacion.aspx>

- Iruzurra prebenitzeko eta detektatzeko tresna eraginkorrak aplikatzea, iruzur-arriskuak identifikatzeko, eta beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea. Iruzurra prebenitzeko eta detektatzeko erabili beharreko prozedura Kudeaketa Agintaritzak zehaztutako hauxe izango da: “2014-2020 aldian Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatzeko eragiketetan arriskuen identifikaziorako eta estaldurarako (arrisku-matrizea) tresna aplikatzeko eta betearazteko prozedura”. Prozedura hori, iruzurrak detektatzeko ere erabiltzen denez, hurrengo epigrafean azaltzen da xeheki.

1. taula. Iruzuraren prebentziorako tresnak

Borondatezkoak	Nahitaezkoak
<ul style="list-style-type: none"> Iruzuraren aurkako neurriak hartzeari buruzko adierazpen instituzionala. 	<ul style="list-style-type: none"> Iruzuraren aurkako borrokari buruzko prestakuntza-saioetara joatea. Kudeaketa Agintaritzak zehaztutako prozedura hau aplikatzea: “2014-2020 aldian Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatzeko eragiketetan arriskuen



identifikaziorako eta estaldurarako (arrisku-matrizea) tresna aplikatzeko eta betearazteko prozedura”.

- Onuradun guztiei, onuradun izan daitezkeenei eta bere eragiketengatik interesdunak izan daitezkeen pertsona guztiei jakinaraztea iruzur-susmorik izanez gero zer helbide elektronikoko balia dezaketen horren berri emateko.
-

3.2. Detektatu

Erakunde onuradunek prozedura hau erabiliko dute iruzurra detektatzeko tresna gisa: “2014-2020 aldian Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatzeko eragiketetan arriskuen identifikaziorako eta estaldurarako (arrisku-matrizea) tresna aplikatzeko eta betearazteko prozedura”. Tresna horren helburua da gerta litezkeen irregulartasunei eta iruzurrei aurea hartzea, eta haien eragina arintzea eta/edo gertatzeko probabilitatea murriztea, bai eta prestatuta egotea ere, arriskua gauzatuko balitz sor lezakeen kaltea murrizteko.

Eredua autoebaluazioko eta ebaluazioko matrize batzuetan oinarrituta dago. Matrizean ageri diren arriskueta bakoitzarekin lotuta zenbait “bandera gorri” daude, arrisku bat egon litekeela adierazten dutenak. Horrela, arrisku espezifikoak identifikatzen dira, eta horietan jarri behar da ahalegin guztia, iruzurra ekar dezaketen jardueren inpaktua murrizteko. Gainera, haren bidez, gabeziak konpontzeko neurri eraginkorrak defini daitezke, iruzurraren kontra eraginkorrak izango direnak.

Matrizeak egitea garrantzitsua da, onuradun bakoitzaren arrisku-maila neurtzeko erabiliko direlako, eta hala, lekuan bertan egingo diren egiaztapenen laginak zehazteko. Dokumentu honen III. eranskinean, iruzurra prebenitzeko eta detektatzeko prozedura horretako matrizeak ageri dira.

Tresna horrek arriskuak ebaluatzeko 2 matrize ditu, eta ebaluazioa egiteko unearen arabera erabiliko dira:

Ex ante matrizea. Matrize hau Bitarteko Erakundeak beteko du, eragiketak egikaritu aurretik. Matrize honek arrisku bakoitzarekin lotutako bandera gorriak gertatzeko zer probabilitate dagoen adierazten du, kudeaketa-metodoaren arabera (diru-laguntzak, kontratazioa eta/edo bitarteko propioak), bai eta arrisku horiek arintzeko zer kontrol egingo diren ere.

Emaitzak baliagarri dira irregulartasunak eta iruzurrak gertatzeko arriskuaren alerta-seinale diren heinean, eta, hala, aukera ematen dute egiten ari diren kontrolak berrikusteko edo beste kontrol batzuk ere ezartzeko, edota jada badaudenak berriro diseinatu edo aldatzeko, eraginkorragoak izan daitezzen.



Ex post matrizea. Matrize honek eragiketaren arriskuak kuantifikatzen ditu, eta eragiketak egikaritzen ari diren bitartean beteko da, itzulketa-eskabidea egin aurretik. *Ex ante* matrizeak dituen bandera gorri eta kontrol berak ditu, baina *ex post* matrizeak haien benetako gauzatzea adierazten du. Matrize hau erakunde onuradunek bete behar dute, eragiketa bakoitzeko.

Lehen esan bezala, matrize honen emaitzek onuradunak arrisku-mailaren arabera sailkatzeko balioko dute, eta hala, arrisku-maila handieneko onuradunei kontrol handiagoa egingo zaie.

Bi matrizeak konbinatuz (*ex ante* eta *ex post* matrizeak), azken matrize bat lortuko da, eta zenbait iragazki ezarriko dira haren bidez, bi helburutarako: batetik, eragiketa jakin bakoitza batera finantzatzera aurkez daitekeen edo ez jakiteko, eta bestetik, egiaztapen-prozesuan aparteko kontrol-mailarik behar den edo ez erabakitzeke.

Bi matrizeak aplikatzearen emaitzek zenbait ondorio dituzte, bai erakunde onuradunentzat, bai Bitarteko Erakundearentzat.

Erakunde onuradunak

Erakunde onuradun baten kasuan, alde nabarmenak badaude *ex ante* matrizean identifikatutako arriskuen eta *ex post* matrizean identifikatutakoen artean, handitu egingo da lekuko bertako egiaztapenak egiteko hautatua izateko probabilitatea, eta handitu egingo da, halaber, egiaztapen administratiboan egiaztatuko den gastu-portzentajea.

Gainera, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, bai arriskua prebenitzeko, bai irregularrak diren gastu guztiak aitortpenetik kentzeko.

Bitarteko Erakundea

Ex ante eta *ex post* arrisku-matrizeen analisiarekin lotuta egindako azterketaren ondorioz, Bitarteko Erakundeak lekuko bertako egiaztapenen laginaren tamaina handituko du eta hura lantzeko erabilitako arrisku-irizpideak areagotuko ditu.

Horrela, *ex post* matrizeko arriskua aurreikusi dena baino handiagoa bada, lekuan bertan egin beharreko egiaztapenak sendotuko dira, arrisku horiek programaren kudeaketan izan dezaketen inpaktua minimizatzen.

Eta, horren osagarri, lekuko kontrolen lagina nahiz egiaztapen administratiboak egingo zaizkien gastuena zehazteko aplikatu beharreko arrisku-irizpideak berrikusiko dira. Hala, arrisku-maila handiena duten onuradunentzat egiaztapen-prozesu zorrotzago bat ezarriko da, eragiketa horien arriskua ahalik txikiena izan dadin.



3.3. Zuzendu eta jakinarazi

3.3.1. Zuzendu

Detektatutako irregulartasun guztiak, bai iruzurtzat hartzen direnak eta bai bestelakoak, zuzendu egingo ditu Bitarteko Erakundeak. Hala, kasu hauek gerta daitezke:

- Irregulartasunak Bitarteko Erakundeak detektatzen baditu lekuan bertan egiaztapena egin bitartean edo egiaztapen administratiboaren prozesuan, orduan irregulartasunak erakunde onuradunaren ordainketa-eskaeratik kenduko dira, eta ez dira sartuko Kudeaketa Agintaritzara bidali beharreko eragiketen eta proiektuen aurkezpenean. Erakunde onuradunei identifikatutako irregulartasunen berri emango zaie, zuzendu ahal izan ditzaten.
- Irregulartasunak Kudeaketa Agintaritzak, Ziurtapen Agintaritzak eta Auditoretza Agintaritzak identifikatzen baditu, bi mailatan gerta daitezke:
 - Irregulartasunak ordainketen eta eragiketen aurkezpen batean egotea, baina ez Europako Erkidegoari egindako ordainketa-eskaera batean. Kasu honetan, irregulartasunak Europako Erkidegoari egindako ordainketa-eskaeratik kenduko dira, eta FSE 14-20en erregistratuko dira.
 - Irregulartasunak ordainketen aurkezpen batean eta Europako Erkidegoari egindako ordainketa-eskaera batean egotea. Kasu honetan, irregulartasunaren zenbatekoa Kudeaketa Agintaritzak aurkeztutako hurrengo gastu-ziurtapenean sartuko dira, automatikoki.

Irregulartasunak zuzentzeko prozedura hau irregulartasun guzti-guztiei aplikatuko zaie, iruzur izan daitezkeelako susmoa izan nahiz ez. Helburua da Europar Batasunaren aurrekontuari egin dakiokeen kalte oro ekiditea edo ahalik azkarren konpontzea.

Bitarteko Erakundeak irregulartasunak zuzentzeko prozeduren berri emango die erakunde onuradunei, baita iruzur izan daitezkeelako susmoa izanda ere.

Gainera, iruzur izan daitezkeelako susmoa dagoen irregulartasunetan, dagokien erakundeei hori jakinarazteko prozedurari ekingo zaio, egoki deritzen zehapen-neurriak har ditzaten.

3.3.2. Jakinarazi

Bitarteko Erakundeak posta elektronikoko helbide bat prestatuko du, erakunde onuradunek eta bestelako entitateek haren bitartez iruzur izan daitezkeen kasuen berri eman ahal izan dezaten.

Bitarteko Erakundeak erakunde onuradun eta bestelako entitate guztiei jakinaraziko die zer mekanismo duen prestatua Iruzuraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalak Europar




Batasunaren funtsen kontura osorik edo hein batean finantzaturako proiektuekin edo eragiketekin lotuta iruzur edo irregulartasun izan daitezkeen egitateen berri emateko.

Bitarteko Erakundearen ardura izango da erakunde eskudunei iruzur izan daitezkeen kasuak jakinaraztea, dela Kudeaketa Agintaritzaren bidez edo dela Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren bidez, azkenik helaraz ditzaten Europako Batzordearen Iruzurraren aurka Borrokatzeko Bulegora (OLAF).

Kontrolako urteko laburpenean urte horretan detektatutako iruzur-kasuei eta -susmoei buruzko atal bat txertatzea aurreikusi da.

2. ilustrazioa. Iruzurra zuzentzeko eta jakinarazteko prozedura



3.4. Jarraipena egin

Iruzur posible bat detektatu ondoren egiten diren ekintza guztietarako, KAK irregulartasunak salatzeko ezarritako tresna komunak baliatuko ditu Bitarteko Erakundeak, FSE14-20 aplikazio informatikoaren bidez, auditoretza-pista bat emateko helburuarekin. Helburu horrekin berarekin, Bitarteko Erakundeak, erakunde kudeatzaileek eta/edo onuradunek iruzur-zantzu bat detektatu ondoren egindako ekintza guztiak agirietan jasoko dira, eta aplikazio horretan biltegitatuko. Hala, iruzur-susmoa piztu duten kasu guztiak dokumentatuta geratuko dira, eta jarraipena egin ahal izango zaie.

Iruzur posible bat detektatu ondoren egindako ekintza guztiak agirietan jasoko dira, eta FSE14-20 aplikazioan biltegitatuko dira, data-orduen zigilua (timestamping) jarrita.

Bitarteko Erakundeak iruzur posibletzat hartutako kasu guztiei jarraipena egingo die sei hilez behin, haien egoera eguneratzeko.



I. eranskina. Adierazpen instituzionalaren eredia, Europako Gizarte Funtzaren kudeaketan eta kontrolean iruzurraren aurkako neurriak hartzeari buruz

.....(e)k (erakundea) programazio-aldi honetarako duen helburu nagusietako bat bere eginkizunen garapenean iruzurraren aurkako politika sendotzea da, betiere bere eskuduntzen eremuan.

Horregatik,(e)k (erakundea) adierazi nahi du erabateko konpromisoa hartzen duela arau juridiko, etiko eta moralak betetzeari dagokionez estandar gorenak zaintzeko, eta erabat atxikitzen zaizkiola zintzotasun, objektibotasun eta zuzentasunaren printzipio zorrotzeneri, berekin harremanak dituen eragile orok edonolako iruzurraren eta ustelkeriaren kontrakotzat ikus dezan haren jarduna.(r)en (erakundea) zuzendaritza-taldeetako kide guztiek bere egiten dute konpromiso hori.

Bestalde, lantaldeak osatzen dituzten pertsonak betebehartzat daukate, besteak beste, printzipio hauek oinarri hartuta jardutea beti: "objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultura-ingurunearen eta ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua".

Politika honen helburua da erakundearen barruan iruzurraren kontrako kultura sustatzea, iruzurrezko zernahi jarduera egiteko gogoia kendu eta halakoak prebenitzea eta detektatzeko erraztuko duena, eta horrelako kasuak kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatu daitezkeen sustatzea, horretarako.

Bitarteko Erakundeek aurretiazko faseetan egindako egiaztapenetatik eta kontroletatik abiatuta, eta Auditoretza Agintaritzak egindako auditoretza- eta fiskalizazio-kontrolak kontuan hartuta,(e)k (erakundea) iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuak jarri ditu abian, aurreko aldietan izandako esperientzian eta iruzur-arriskua ebaluatzeko asmoz berriaz egin berri den azterketan oinarrituta.

Hitz batez,(e)k (erakundea) iruzurrarekiko eta ustelkeriarekiko zero tolerantziako politika du, eta kontrol-sistema sendo bat ezarri du, bereziki taxutua iruzurrezko egintzak prebenitu eta detektatzeko, ahal den heinean, eta, halakorik gertatuko balitz, haien eragina zuzentzeko.

.....(e)n,